

Urrustiko suteak eragindako kalteei aurre egiteko laguntza-kontua irekita dago



Barbari auzoko Urrusti-erdikoa baserrian sutea izan zen otsailaren 22 iluntzean. Ia etxe guztia kiskalita geratu zen. Benetan egoera penagarria argazkietan ere ikus daitekeenez.

Dakizuenez, Zerainen aspalditik su-ermandade bat dago, sute kasuetan herritarrek elkar-laguntzeko. Urrustiko ezbeharraren ostean, su-ermandadea ari da kide diren etxeetan bakoitzari dagokion diru ekarpena biltzen, jasotakoarekin Urrustikoei laguntzeko. Horrez gain ordea, beren laguntza eman nahi duten herritar edo kanpoko guztientzat su-ermandadeak kontu bat ireki du Kutxan (2101 0066 81 0012321931). Borondate on guztia ere ez da sobrante izango!



Aizpeko galeria eraberritua herritarren artean inauguratuko da martxoaren 28an

Aizpeko burdinaren mendiaren berreskurapen eta garapenean beste urrats bat eman da. Iaz garai hauetan ireki zen Aizpitta adieraztegia, eta orain, galeria edo barrubide bat jendeak ikusteko moduan jarri da. Horretarako kiskalketa-labeen ondoran dagoen galeria horren segurtasun neurriak bermatu, eraberritu, eta lehengo erako itxura eman zaio.

Datorren martxoaren 28an, larunbata, galeria hori herritarrekin batera inauguratuko da. Goizeko 11:30etan Aizpitta aldean elkartu eta elkarrekin barrubide eraberritua inauguratu eta

ikusteko aukera ezin hobe izango da. Irekiera horren ondoren, nahi duenak Aizpitta bisitatzeko aukera ere izango du. Ondoren, eguerdi aldean aho-goxagarriren bat edo beste egongo da herritarrok elkarrekin tertuliatxo bat egin dezagun. Zeraindar guztiok gonbidatuta zaudete martxoaren 28an Aizpeko burdinaren mendira.

Larunbat horretatik aurrera, bisitarien zatik ikusgai egongo da barrubidea meategien beste atal guztiarekin batera. Aurrez, ordea, herritarroei dagokigu ikusi eta inauguratzea.

Pentsioen lege berria

Abenduan 23an onartu berria den Diru-Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearekin, familiarrean bizi diren zenbait pertsonak beren pentsioak osatzeko aukera izango dute 2009ko urtarriletik aurrera. Pentsio txikiak, kotizatu gabekoak, zahartzarokoak, ezintasunekoak edo alarguntzakoak dituzten pertsonak izango dira onuradunak, ekonomikoki haien mende daudenekin eta ezkontideekin batera.

Honetaz guztiaz informazio gehiago nahi duenak Udaleko Gizarte Zerbitzuekin jarri behar du harremanetan, ostegunetan 12:15etatik 15:00tara.



Otsailaren 19an antzerki emanaldia izan zen Zeraingo eliztarian. "Poemen Jaialdia" antzeztu genuen Zeraingo Herri Eskolako umeei. Izan ziren ikusle guztiei asko gustatu zitzaion. Txalo ugari jaso genuen antzezlariak.

Josu, Aroa eta Adur



Otsailaren 23an, inauterietan, mozzorro festa egin genuen Zeraingo plazan: dantzatu egin genuen. Ondoren gurasoek merienda eskaini zieten festan parte hartu zutenari. Oso ondo pasa genuen.

Haizea

XVI. Endika Alustiza memoriala Joxe Lazkanok irabazi zuen



Martxoaren 1en jokatu zen XVI. Endika Alustiza memoriala. Pedro Lazkano izan zen irabazle; bigarren Jose Antonio Ugarteburu izan zen eta hirugarren Ibon Miner. Bezperan, Goierriko txapelketa jokatu zen eta Andoni Berasategi idiazabaldarrak irabazi zuen.

Ostatuko I. mus txapelketa zegamarrek irabazi dute



Martxoaren 7an Ostatu jatetxeak antolatuta lehenengo mus txapelketa jokatu zen. Guztira 32 bikotek parte hartu zuten eta garaile bi zegamar izan ziren: Luis Mari Arrieta eta Jesus Zabaleta. Haien aurka finalean mutiloarrek galdu zuten: Jose Mari Murgiondo eta Luis Aranburuk.

Beantzaia, berantzagia

Denbora zeraman Elenak esanaz, hitz honi ere heldu behar geniola. Zeraindarraren artean galtzen ari dela eta merezi duela gogoratzea. Asko erabiltzen zela anti-goalean, hain aspaldi izan gabe ere bai, eta orain berriz oso gutxi baliatzen garela horretaz. Aipamentxo bat egin behar geniola, hortaz, hitz honi ere. Goazen, beraz, **berantzagi** horrekin.

Zer esan nahi du hitz horrek? Gaztelaniazko *levadura*, frantsesezko *levain*. Hots, ogia egiteko irinari eranstean zaion lehengai berezia. **Berantzagiaren** antzekoak dira *altxagarria* eta, euskara batuan, *legamia*. Ogia egiteko prozesua badakizue zein den. Irinari berantzagia, ura eta gatza eranstean zaio, eta horrela sortzen den masari oreia esaten zaio. Masa hori oratu egin behar da: labesua egiten zen garaian, bertan izaten zen oramaia (oamaia, oraingo zeraindarraren artean oamaia). Han bertan lotan uzten zen oreia, estalita, su inguruko epelean, ordu-pare bat edo. Ore-masa horretatik gorde egiten zen zatitxo bat: hori izaten zen hurrengo txandarako berantzagia. Bere denbora pasatakoan zatitu egiten zen oreia, eta zati bakoitzarekin forma jakineko ogia egiten zen: ogi luzea, opila edo dena delakoa. Aurrez berotutako labera sartzen dira ogiak, eta han erretzen dira. Erreta daudeanean, aurrez garbitu dugun orema-haian gordetzen dira. Eta gero, hala behar denen, mahaira zerbitzen.

Gari-irinari berantzagia erantsi ohi zaio, uraz eta gatzaz gainera, ogia egiteko. Ba omen da, ordea, berantzagirik gabeko ogirik ere: hala zioen Mutiloko benefiziadunak, Gerrickok, orain dela mende t'erdi (1858ko bere liburu famatuan). Berantzagia ez da, bestalde gari-irinatarako bakarrik. Gariarekin ez ezik, artoarekin erabili izan da berantzagia: horrela eginga da, esate baterako, Urretxuko Kandido Izagirrek 1967an *berantzagi-artoa* esaten zuena.

Nola osatua dago hitza? Batetik **berant**, eta bestetik **zagi**. Erraza da

berant hori zer den esatea: "tarde, tardío". Nafarroa gehiengan eta iparraldean, gutxitan esaten dute **berandu**. Askotan, aldiz, berant. Guk ere badugu berant horren bestelako testigantzarik: esate baterako **berantarki** "nabo tardío", **berantardi**

"oveja nacida al final de temporada" eta **berantarto** "maíz tardío". Horrela eratuak dira nafarren eta iparraldekoen beste hitz hauek ere: *berantetsi*, *berantordu*, *berantiar* eta abar. Zailagoa da, ondotoz, bigarren zatian (**zagi** horretan) zer dagoen esatea. Azken silaba, **gi** hori, **egin** aditzaren erroa dela uste dut. Aurreko **za** horri esplikazio artezik ematen ez naiz ordea ausartzen.

Aspertuak zaituztegu honez gero, hitzak galtzen ari izateko motiboak astintzerakoan. Badakizue, ondo asko, zergatik galtzen ari den hainbat eta hainbat hitz: ez guztiak, baina bai gehienak esateko orduan. Galdugalduek ez da hitza galtzen, lehenik eta behin. Bizimodua aldatzen ari da. Hori da benetako motiboa. Bizimodua aldatu ahala hitzetakoa dela hau ere. Bizimodua, berriz, zergatik ari da aldatzen? Gizartea aldatzen ari delako berritzen ari delako etengabe. Bale, ondo zegok. Baina ez didazue printzipalena esplikatu: zergatik ari da gizartea aldatzen, berritzen? Iritsi gara, azkenik, lokarriaren azken muturrera. Transformazio demografikoak, ekonomikoak, teknologikoak, sozialak, kulturalak eta politikoak gertatzen direlako aldatzen da gizartea; motibo horientatik guztiengatik, ez motibo bakarragatik, berritzen da gizartea hemen eta nonahi. Aldaketa edo berrikuntza horiek ia antzeman gabe gertatzen dira batzuetan, aski ziztu bizian bes-teetan.

Gatozen gure kasura: berrikuntza



teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak baserritik kalera eraman gaitu oro har, azken mende luzean, etxean (baserrian) lan egiteak eta han sortzen zenaz bizi izateak lana etxetik kanpora egitera eta jatena, gero eta gehiago, etxetik kanpora (hasieran ultramarino-dendan, orain supermerkatuan) erostera. Baita ogia ere. Etxean egiten zen lehen, baserrietan batez ere, ogia. Hartarako lehengai nagusia, garia, bertan ereiten zen eta, urtea oso txarra ez bazen, bertan biltzen. Lehengai "beste zerbait" erantsi behar izaten zitzaion, uraz gainera: altxagarria edo berantzagia, gaztelaniazko *levadura*. Bizimodu berrian ez dugu, gaurko bizilagunon ehunetik laurogeita hemeretzi, garia non erein eta non bildu. Hartarako lekua izango bagenu ere, denborarik ez genuke gari-saila zaindu eta xehatzeko, lehortzeko eta alea jasotzeko. Askotan komeriak izaten dira, hori dena eginik ematen digun almazenera joan eta erosteko ere. Erosteko astirik hartuta ere, ogia etxean egiteko apenas familia guztiok astirik dugun. Hitz bitan: "beste bizimodua" da gaurkoa, eta ogia etxean egiteak ez du gizarte berri honetan lekurik ia. Aparteko kasu eredugarriak dira, alde horretatik, Larraondoko Juli eta bere moduko zeraindar bakarrik, ehunka (agian milaka) urteko ohiturari eutsiz ogia orain ere etxean egiten dutenak.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Babesetik

OTSAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 169 l.						0,5
C° altuena	ALTUENA: 18°						12
C° baxuena	BAXUENA: -2°						3
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	3,5	0	8	0,5	13	40	15
C° altuena	8	8	9	13	12	7	3
C° baxuena	6	2	7	7	4	0	0
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	2	26	35	25,5	0	0	0
C° altuena	5	15	15	9	9	10	8
C° baxuena	2	7	4	6	3	-1	-2
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	10	9	10	10	11	13	11
C° baxuena	-2	-2	3	6	5	2	6
	23	24	25	26	27	28	
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	
C° altuena	10	9	8	15	18	18	
C° baxuena	6	6	2	6	2	6	

MIMOSA, ACACIA DEALBATA

Mimosa, *acacia dealbata*, aurtengo otsaila bukaeran loratu da, hainbeste busti eta hotzek honi ere loratzea atzeratu egin dio, baina beranduxea go bada ere, beti bezain koloretsu eta usaintsu agertzen da. Urrutitik ikusi ohi dugu hain goiz loratzen den zuhaitz hau.



Goya jaiotetxera itzuli da



Francisco de Goya pintorearen ohorezko bustoa (kultur etxe aurrean zegoena) Mantxola baserri (jaiotetxea) atarian jarri da. Lehen zegoen lekuan Joxe Mari Telleriak egindako Goyaren eskultura berria ipini zen 2008 bukaeran.

Korrika badator!!!!!!!!!!!!

AEKren Korrikaren 16. edizioa apirilaren 2an pasako da Zeraindik goizeko 8ak buelta horretan. Ostegun horretan, Seguratik sartuko da ekimena herrira eta Mutiloara joango da. Zeraindar guztion artean (Udala, elkarteak, zerbitzuak...) hainbat kilometro erosi ditugu AEK diruz lagun-

tzeko. Korrika egin ondoren, nahi duten guztientzat gosaria egingo da sozidadean. Bestalde, Korrikaren materiala Mandio dendan egongo da salgai. Azken xehetasunak lotzeko, martxoaren 23an, astelehena, bilera egingo da iluntzeko 7etan kultur etxean. Goazen denok Korrika!

Hauteskundeak

Martxoaren 1en EAEko Legebiltzar-rerako egindako hauteskundeetan, Zerainen honako emaitzak izan ziren. EAJ: 83 boto; D3M: (ilegalizatu) 53 boto; Aralar: 16 boto; EA: 3 boto; EB-Berdeak: boto bat; PP: boto bat eta PSE-EE: boto bat.

Ibilgailuen zerga

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga apirilaren 1ean kobratuko zaie erreziboa kobratzeko helbideraketa eginda duten herriko kotxe-jabeiei. Helbideraketa egin gabe dutenek udaletxera joan beharko dute dago-kien zerga pagatzera.

Uren ordainketa

Gipuzkoako Urak S.A.k bere abontuei honakoa jakinarazi nahi die: epe barruan ordaintzen ez diren erreziboen kobraketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utziko du. Hori dela-eta, ordaintzen ez duten abontuei bahiketa bidez kenduko zaie dagokien dirua.